

Baketik-en bideoteka

Baketik-ek geurekin eta besteekin etikoki bizitzearekin zerikusia duten filmen eta dokumentalen bideoteka bat sortu du. Helburu hezigarria dauka soilik, ez komertziala. Baketik-ek doan uzten dizkie pelikulak eskatzen dituztenei: ikastetxeak, aisialdi taldeak, parrokiak, GKEak, mota guztietako elkarteak, familiak, lagun taldeak... Pelikula bakoitzak hau bezalako gida didaktiko bat darama. Edukiari buruzko azterketa eta gogoeta erraztea du xede. Gida bakoitzean pelikula ikusi duen Baketik-eko kolaboratzaile batek bi atal egin ditu: «gaia» eta «galderak pelikula ikusteko eta ondoren». Hau da pertsona honek pelikula ikusteko egiten digun iradokizuna. Nahi izanez gero, zeuk ere parte har dezakezu gustatu zaizkizun zenbait pelikulen iritziak bidalita. (Informazio gehiago www.baketik.org webgunean)

Intocable

Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: Intouchables.

URTEA: 2011.

IRAUPENA: 115 min.

HERRIALDEA: Frantzia.

ZUZENDARIA: Eric Toledano eta Olivier Nakache.

AKTORE-ZERRENDA: François Cluzet, Omar Sy.

EKOIZPEN-ETXEA: Nicolas Duval-Adassovsky, Laurent Zeitoun, Yann Zenou.

Sinopsia

Gertakari errealetan oinarritutako komedia. Elkar inoiz aurkitu behar ez zuten bi gizonezkoen buruzko istorioa: trafiko-istripu batean zauritutako aristokrata bat eta Pariseko auzo pobre bateko gazte bat, bere laguntzaile bilakatu eta bizitzeko gogoak berreskuratzen lagunduko diona.

Gaiak

Desberdintasuna, adiskidetasuna eta harremanak

Desberdintasuna: Pelikula honetan kontrako bi mundutatik abiatzen gara non klixek apurtzen diren desberdintasunek eskaintzen dizkiguten ikaskuntza-, enpatia- eta umiltasun-aukerei lekua uzteko.

Adiskidetasuna: Giza arimaren biziraupenaren bazterretara egindako bidai bat da pelikula, beren egoerarengatik gizarteak baztertutako bi pertsonen. Bidaian zehar energiaren eta umorez betetako adiskidetasuna aurkituko dute, «ukiezin» bilakatuz.

Harremanak: Aurreiritziek eta desberdintasunek (arrazagatikoak, sozialak edo fisikoak) harremanetarako sorrarazten dituzten zailtasunak erakusten ditu pelikulak.

Filma ikusteko eta entzuteko iradokizunak

Pelikula bat modu askotara ikus eta entzun daiteke. Erreferentzi puntu batzuk eskaintzen ditugu. Zehazki pelikula modu honetara ikustea eta entzutea iradokitzen dizugu:

...barrura begira. Gutako bakoitzari esanguratsu egiten zaigun horri buruz eta gure bizitzan bertan sorrarazten dizkigun galderei buruz hausnartu. Helburua ez da betirako erantzunak aurkitzea, uzten dizkigun arastoei erreparatzea baizik.

...kanpora begira. Taldean edota familian elkarriketa sustatu. Kontua ez da ondorioetara iristea. Hauteman eta sentitu duguna konpartitzea, eta besteen hautemate ezberdina entzuten eta ulertzen saiatzea da.

...ez bakarrik arrazoiarekin, baita bihotzarekin ere. Une batez aurreiritzi ideologikoak eta edo aurrez ditugun ideiak albo batera utzi, pelikulak kontatzen digun horren harira, sentimenduek hitz egin dezaten.

...eta denbora baten buruan, berriz ere pentsatu. Adi erreparatu egun batzuen ostean pelikulak utzitako arrastoari. Arrasto hori ikusi dugunari buruzko hausnarketak eta istorioak gugan hartu duen biziak sortutako inpresioa da.

Zenbait galdera...

...pelikula ikusi aurretik

- Desberdintasunei buruz: Zergatik jartzen diegu zenbait pertsonen «desberdinaren» etiketa? Urritasun fisiko edo psikiko duen pertsona bat edo gizartearen baztertua dagoen bat gugandik desberdina al da? Zertan bai eta zertan ez? Onartzen al ditugu gizarteak desberdintasunak?
- Adiskidetasunari buruz: Non oinarritzen dugu adiskidetasuna? Zer baloratzen dugu lagunengandik? Oso desberdinak diren bi pertsona lagun izan al daitezke?
- Harremanei buruz: Aurretik juzgatzen al ditugu pertsonak? Zeren arabera? Aurreiritziek ba al dute eraginik harremanetan? Nola?


...pelikula ikusi ondoren

- Nola ikusten du errealitatea Philippe-k? ¿Eta Driss-ek? Ezagutzen direnean, nola ikusten du Driss Philippe-k? Eta Philippe Driss-ek? Zerbait partekatzen al dute?
- Nolakoa da beren arteko harremana? Lagunen arteko harremana al da? Lanekoa? Interesatua? Nola aldarazten ditu elkar ezagutzeak? Zer eskaintzen diote elkarri?
- Nola ikusten dute besteek beren harremana? Onartzen al dute? Driss-enganako aurreiritziak ba al da? Driss-enganako jendearen jarrera aldatzen ari al da? Zergatik?

Elena Aranbarriren laguntzarekin.

Cine para **vivir y convivir**

Intocable



baketik

943-251005

www.baketik.org

baketik

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
LEHENKARIITZA PRESIDENCIA
Baketik eta Elakidetasuneko Idazkaritza Nagusia Sekretaría General para la Paz y la Convivencia
Bakimena eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Dirección de Víctimas y Derechos Humanos